



OROZKOKO UDALA

UDAL IGERILEKUEN ERABILERAREN TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

*(1994/11/10ko 214 zb. B.A.O..ean argitaratua eta 2003/12/31eko 250 zb. B.B.O.ean,
2008/12/19ko 244 zb. B.A.O..ean eta 2019/12/17ko 240 zb. B.A.O.ean aldatua)*

1. artikulua

Kondaira Lurraldeko Hazienda Lokalak arautzen dituen Abenduaren 28ko 88/39 Legearen 41. artikuluan eta 89/5 Foru Arauaren 43. eta hurrengo artikuloen arabera, Orozkozko Udaletxeak, Udal Igerilekuen erabilpenagatik prezio publikoak ezartzen ditu.

2. artikulua

Egintza ezargarria Udal Igerilekuen, estalitakoa eta estaligabekoa, erabilerak zehaztuko dau.

Ordaindu beharra zerbitzu edo antolapenak erabiltzen diren momentuan hasiko da, edo, abonamenduen kasuetan, Udaletxeak eurak emoteko baimena emoten dauan momentuan.

3. artikulua

Udal Igerilekuak erreserbatzen edo erabiltzen dituen pertsona natural edo juridiko guztiak ordainketara beharturik egongo dira.

4. artikulua

Prezio publiko honi dagokiozan tarifak hurrengo hauek izango dira (B.E.Z. barne):

Bakarkako harpidetza:

- 18 urtetik gorakoak:

- * Erroldatua: 64,07 euro.
- * Erroldatu gabea: 91,52 euro.

- 14 urtetik 17 urtera bitartekoak:

- * erroldatua: 36,61 euro.
- * erroldatu gabea: 50,33 euro.

- 5 urtetik 13 urtera bitartekoak:

- * erroldatua: 18,34 euro.
- * erroldatu gabea: 26,97 euro.

- 65 urtetik gorakoak, erabateko ezintasuneko pentsionistak eta %33ko edo gehiagoko minusbaliotasun-maila onartuta daukien minusbaliodunentzat:

- * Erroldatua: 36,61 euro.
- * Erroldatu gabekoak: 50,43 euro.

- 0 urtetik 4 urtera bitartekoak: Dohainik.

Abonamendu familiarra:

Udal Igerilekuen abonamendua familiarren 4 pertsonak gutxienez ateratzen baditue, %5a beheratuko jakie; 5gn kidetik aurrera %10a; 6gn kidetik aurrera %15a eta abar. Kenketa hau



OROZKOKO UDALA

kuoten gehiketa guztitik egingo da eta abonamendua egun berebean eta batera ateratzen badabe.

Sarrerak:

- * 16 urtetik gorakoak: 4,14 euro.
- * 5 urtetik 15 urtera bitartekoak: 3,37 euro.
- * 0 urtetik 4 urtera bitartekoak: Dohainik.
- * 15 kide edo gehiagoko taldeak: 2 euro/kidea.

Bakarkako harpidetza urtearen azken hiruhilabeterako.

- 18 urtetik gorakoak:

- * Erroldatuak: 25,04 euro.
- * Erroldatu gabeak: 35,64 euro.

- 14 urtetik 17 urtera bitartekoak:

- * Erroldatuak: 14,26 euro.
- * Erroldatu gabeak: 19,60 euro.

- 5 urtetik 13 urtera bitartekoak:

- * Erroldatuak: 7,16 euro.
- * Erroldatu gabeak: 19,60 euro.

- 65 urtetik gorakoak, erabateko ezintasuneko pentsionistak eta %33ko edo gehiagoko ezintasuna daukien pertsonak:

- * Erroldatuak: 14,26 euro.
- * Ez erroldatuak: 19,60 euros.

- 0 urtetik 4 urtera bitartekoak: Dohainik.

- Duhintasuna eta Hobari bereziak:

Gutxienezko lansaria baino diru-sarrera gehiago lortzen ez daben ezindun eta adimen urrikoak oradindu beharizanetik kanpo geratuko dira. Beti, Ibarrako Hezkuntza Bereziko Ikastetxeko kideak ordaindu beharizanetik kanpo geratuko dira.

Lanik gabe edo oinarrizko errenta jasotzen ari diren auzoei; kasu bietan, urtean behintzat 9 hilabetez, tarifaren %50 beherapena egingo zaie. Hala ere, egoera horretan dauden auzoei, dagozkien tarifa osoa ordaintzea tokatuko zaie lehendabizi, ekitaldiaren amaieran desberdintasunaren itzulera eskatzeko aukera izanik; lehen aipatutako epean lanik gabe edo oinarrizko errenta jasotzen ari zirela dokumentuekin benetakotu behar izanez gero.

- Sarreraren %15eko hobaria: kategoría orokerreko titulartasuneko familia ugariak polikiroldegiko instalazioak erabiltzeagatik eta %25a kategoría berezidun titulartasuneko familia ugariak erabiltzeagatik.

- Abonuaren %15eko hobaria: kategoría orokorreko titulartasuneko familia ugariak polikiroldegiko instalazioak erabiltzeagatik eta %25a kategoría berezidun titulartasuneko familia ugariak erabiltzeagatik.

Tarifak kobratzerakoan, kontutan hartuko dan adina, eskarriegileak ekitaldiaren azkenenan daukan adina izango da.



OROZKOKO UDALA

5. artikulua

Instalakuntzen erreserbari buruz Udaletxeko Alkatetziak hartuko dau erabakia; guzti hau, eskarian aurkeztutako zioak kontutan harturik eta instalakuntzen erabilgarritasunaren arabera.

6. artikulua

Udal Igerilekuak erabili gura dabean pertsona, erakunde edo abonatu guztiak Alkatetziak ezartzen dituan epeetan, hauek, urtearen Abenduaren 1etik 31rarte bitartea izanik, Udaletxean eskatuko behar dabe.

Familiaren konzeptua kontutan hartzerakoan, familiaren kide hartuko dira: gurasoak euren seme-alabekin, azken hauek, 25 urtetatik beharakoak izan beharko dabe.

7. artikulua

Prezio publikoa, abonamenduentzat, urte guztirakoa izango da eta Urtarrilaren lehenengo hamabost egunen barruan ordaindu beharko da.

Abonamenduetan bajak egiten badira, dirua banaturik itzuliko da eta ekitaldian zehar altak egiten badira, ekitaldi guztiko prezio publikoa ordaindu beharko dabe.

8. artikulua

Instalakuntzen ordutegia Alkatetziak ezarriko dau igerilekuen erabilpena egiteko denboraldiaren hasieran.

AZKEN XEDAPENA

1995.eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu eta indarrean sartuko da Ordenantza hau.